

HIRUGARREN HIZKUNTZA ESKAKIZUNA

Hizkuntzen Europako Erreferentzia Marko Bateratuaren C1 maila

IDATZIZKO AZTERKETA

[A eredua]

- Idatzizko azterketak **bi proba** ditu: irakurmena eta idazmena.
- **2h 30 min** dituzu azterketa egiteko.

	PROBEN EZAUGARRIAK	AURREIKUSITAKO DENBORA	PUNTUAZIOA (GEHIENEZ)	PUNTUAZIOA (GUTXIENEZ)
IRAKURMEN PROBA	<ul style="list-style-type: none"> • Hiru ariketa dauzka. Hirurak egin behar dira. • Hiru irakurgai dira eta guztira 34 item. • Lehenengo ariketan item bakoitzak 0,4 puntu balio du; bigarren eta hirugarren ariketetan 0,8 puntu. • Txarto erantzuteagatik ez da punturik kenduko. • Testuen luzera guztira: 1.700 hitz gehienez. 	50-60 min	20	10
IDAZMEN PROBA	<ul style="list-style-type: none"> • Bi ariketa ditu. Biak balio berekoak (15 puntu). Biak egin behar dira eta eskatutako hitz kopurua bete. Eskatutako hitz kopurua ez idazteagatik puntuak kenduko dira. 	90 min	30	15

- **Irakurri** atal bakoitzean datozen **argibideak** eta egizu bertan jartzen duena.
- Egin **idazmen-probako ariketak** horretarako eman zaizkizun **aparteko orrietan**.
- Azterketa-koaderno hau ez da jasoko, **zuzetzat da**.

1. ariketa

Hutsuneak bete. Testutik zenbait hitz ezabatu ditugu. Erantzun-orrian aukera ezazu zenbaki bakoitzari dagokion hitza.

GORDAILURA HASI DIRA ERAMATEN JAURLARITZAREN BILDUMA

Gipuzkoako ondare artistiko, arkeologiko eta etnologikoa bildu, zaharberritu eta ezagutarazteko eraiki eta zabaldu zuten Gordailua izeneko zentroa 2011ko ekainean. Ordutik, Gipuzkoako Foru Aldundiak **1** duen Irungo eraikin horretan milaka pieza biltegitatu dituzte eta bertan dago gordeta lurraldearen ondare artistiko eta etnologikoaren zati handi bat. Orain arte, **2**, Gipuzkoan eginiko indusketetan aurkitutako material arkeologiko guztia Eusko Jaurlaritzaren Derioko (Bizkaia) biltegian eta Donostiakoan egon da gordeta. Hemendik aurrera pieza horiek guztiek ere Gordailuan hartuko dute **3**. Seiehun eta berrogei mila pieza inguru izango dira, Joxe Migel Barandiaranek 1917an lehen indusketa egin zuenetik gaur artekoetaraino Gipuzkoan jasotako arkeologia eta paleontologia material guztiak, **4**. Intxaurrendoko biltegitakoak hasiak dira Gordailura iristen dagoeneko eta beste hilabete beharko dute guztiak **5**.

Arabian eta Bizkaian aldundien esku dago halako materialen kudeaketa, eta **6** hori bere gain hartzea Gipuzkoako Aldundiaren aspaldiko **7** zen. Iazko abenduan, Gordailua Gipuzkoako Kultur Ondare Higigarriaren Zentro izendatu zuen Jaurlaritzak eta joan den otsailan aipatutako materialak Gordailura eramateko agindua eman zuen **8** baten bidez. Hala, gestioa Gipuzkoako Foru Aldundiaren esku geratuko da, baina Jaurlaritzarena izango da Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako **9** koordinatzeko ardura. Egun garrantzitsutzat jo zuen atzokoa Gipuzkoako Kultura diputatuak; pozik agertu zen prentsurrekoan eta eskerrak eman zituen, arkeologiaren munduak aspalditik zeukan ametsa bete baita. Jaurlaritzako Kultur Ondarearen zuzendariaren hitzetan, aro baten amaiera eta beste aro berri bati ekiteko aukera dakar erabakiak, akordio honen **10** hiru lurraldeen arteko gestio eredu bateratu bat **11** baitator, orain arte ez zegoena eta anomalia historikoa zena. Elkarlanerako eredu berria eta eskuduntza zehaztuta lurraldeen arteko koordinazio politika hobek egin ahalko direla uste du Jaurlaritzako Kultur Ondarearen zuzendariak eta, alde horretatik, **12** zuen Artxibo Arkeologikoen Euskal Sarea deritzon proiektua sustatzeko asmoa duela Jaurlaritzak.

Hilaren bian hasi ziren piezak Intxaurrendotik Gordailura eramaten eta erritmo onean ari direla **13** dute proiektuko arkeologoek: bertako piezen ia erdiak Irunen daude, hiru mila kaxa inguru. Beste hilabete beharko dute denak eramateko. Orotara, ehun eta hirurogei mila euroko kostua izango du tokiz aldatzeak, kaxak erosteko eta garraiatzeko gastuak ordaintzeaz gain, zortzi arkeologo kontratatu baititu Aldundiak, **14**, horretan ari den lantaldea indartzeko.

Bigarren solairuko armairuetan ari dira biltegitratzen pieza gehienak, kaxetan, bakoitza bere datuekin eta dagokion QR kodearekin, **15** errazte aldera. Han dituzte, esaterako, zeramika-piezak. Handienak, berriz, beheko solairuan daude: tratatutako gerra-kanoi bat, itsasontzi baten ohol zaharberrituak, harrizko pieza handiak... Badira, **16**, tratatu arte kontserbazio berezia behar dutenak eta igerileku berezi batean dituzte, urpean. Metalezko pieza gehienak, berriz, material **17** gelan dituzte, baldintza berezietan. Biltegi mota bakoitzak bere tenperatura eta **18** zehatzak ditu, piezak egoki kontserbatzeko. Lurraldeko ondarearen harribitxietako batzuk ere, Ekaingo lauzatxoak bere grabatuekin eta Praileaitzeko lepokoak kasu, Gordailuan izango dira aurrerantzean, beste altxorren artean gordeta.

SARASOLA, A. *Berría*, 2015eko martxoaren 27a. Egokitua

1. ariketa. Aukeratu hutsuneak betetzeko hitz egokia

1. a) artatzen
 b) kudeatzen
 c) salbuesten
 d) ihartzen

2. a) bederen
 b) hortaz
 c) ordea
 d) honenbestez

3. a) leku
 b) hitza
 c) kargu
 d) berme

4. a) alegia
 b) ordea
 c) apika
 d) halabeharrez

5. a) gailentzeko
 b) baztertzeko
 c) inguratzeko
 d) lekualdatzeko

6. a) islapen
 b) aitormen
 c) luzapen
 d) eskumen

7. a) azalpena
 b) bizipena
 c) aldarrikapena
 d) erakarpena

8. a) gaitzespen
 b) aipamen
 c) itzulpen
 d) ebazpen

9. a) ahuleziak
 b) ajeak
 c) barrenak
 d) ustiapenak

10. a) eranskina
 b) oinarria
 c) altxorra
 d) indarraldia

11. a) bereiztera
 b) sendotzera
 c) estaltzera
 d) pairatzera

12. a) kontrajarri
 b) izapidetu
 c) iragarri
 d) alderatu

13. a) urratu
 b) barneratu
 c) baieztatu
 d) besterendu

14. a) behin-behinean
 b) behin ere
 c) behin batean
 d) behin bateko

15. a) eragiketak
 b) arauketak
 c) apainketak
 d) bilaketak

16. a) halaber
 b) bidenabar
 c) izan ere
 d) hots

17. a) egoskorretarako
 b) geldikorretarako
 c) sentikorretarako
 d) sarkorretarako

18. a) gaitasun
 b) hezetasun
 c) iraunkortasun
 d) bikoiztasun

2. ariketa

Ondoren testu bat daukazu. Irakurri eta erantzun galderai.

Aukeratu erantzuna. Bakarra da zuzena.

PREBENTZIOAREN KRITIKA

Herritar gehienek uste dute Estatuak prebentzioaren alorrean gomendatutako prozedurak sanoak eta eraginkorrak direla. Oker daude. Agintzen dizkiguten botikak, odol-analisiak edo erradiologia guztiak ez dira uste dugun bezain eraginkorrak eta okerreko efektua izan dezakete gure osasunean. Gaixoak sortzeko bidea dira, osasuntsu dagoenari eraginkorrak ez diren prebentzio-ekintza batzuk edo arriskutsuak izan daitezkeenak proposatzen baitzaizkio. Kanpaina berrietan darabiltzaten datuek ez dute, ez balio zientifikorik, ezta estatistikorik ere; sektoreko industrialek ematen dituzten frogatu gabeko datuak dira. Datuok aditu batzuek bermatuak bide dira, baina sarritan adituak industrialen eraginpean daude. Prebentzio-kanpaina horietan erakunde publikoek eta pribatuak lehen aipatutako prebentzio-ekintzen, botiken edo analisisen eraginkortasunari buruzko gezurrezko mezua zabaltzen dute hedabide guztietan, eta populazioak sinetsi egiten die. Azkenean, politika ez-eraginkor horrek gaixoak sortzen ditu, eritasunak ugaritzen ditu eta hondamendi finantzarioa sortzen du.

Nola ulertu gaixoen jokabidea?

Gaixoen jokabidea ulertzeko mekanismo hauek hartu behar dira aintzat:

Beldurra. Egunkari eta aldizkari, telebistako programa eta agintarien agiritatik etengabe gogorarazten zaigu osasuna zaindu egin behar dela eta edozein sintoma jakinarazi egin behar zaiola medikuari. Egoera horrek larritu egiten ditu herritarrek, uste baitute medikuntzak bakarrik eman ahal diela irtenbidea osasun-arazoei eta horrek buruz baino gehiago emozioz jokarazten die gaixoei. Beldur horretaz baliatzen dira osasunaren profesionalak, medizina tradizionalakoak zein paralelokoak, gaixoen gain duten boterea handitzeko.

Populazioaren zahartzea. Urteak pasa ahala, populazioa fisikoki ahultzeaz gain, jendeak osasunaren inguruan duen kezka handitu egiten da; heriotza hurbiltzen doa eta hurbiletik ikusten du inguruko senitarte eta lagunaren artean. Gorputzaren ahuldade txikiena ere sumatu orduko medikuarengana jotzea obligazio bilakatzen da.

Mendebaldeko populazioak medikuntzarekiko eta medikuenganako daukan mendekotasuna. Osasunaren profesionalak, baita agintari politikoak eta hedabideak ere, zientzia medikoen aurrerapenak ari dira gorai patzen etengabe. Gaixoei beti onartzen dituzte proposatutako diagnostiko eta terapiak. Eguneroko praktikan ez zaie oniritzia eskatzen. Gaixoak uste du aukeratzeko libre dela, baina

oharkabean bere jokabidearekin onartu egiten ditu medikuen erabakiak eta arauak.

Populazioa profesional horien mende dago. Zentzu kritiko oro galdurik, bat egiten du etengabe berritzen diren medikuntza ofizial eta alternatiboan diskurtsoekin.

Herritarrek legezkoztat jotzen dituzte medikuen gomendioak, datu zientifikoak ematen ari direlakoan. Gomendioak oso gutxitan jartzen dira zalantzan eta, azken batean, adituenak izan arren, iritziak baino ez dira, sarritan ezagutza zientifikoetan baino iritzi pertsonaletan oinarritzen baitira.

Herritarren mendekotasuna medikuen boterearekiko. Herritarrek dependentsia bilaka daitezkeen mendekotasunaren kontra borroka egin dezaten, izateko eta egiteko askatasuna berreskura dezaten, bi baldintza dira nahitaezkoak: batetik, medikuntzako erakundearen eta osasun-egituren funtzionamendu demokratikoa eta, bestetik, gaixoak profesionalen aginduak obeditzeari uko egitea baldin eta ez baditu ezagutzen eta ulertzen gomendioaren arrazoiak. Obeditzeak baitakar mendean jartzea.

Jendeak patologia askorekin daukan portaeren inguruko benetako prebentzio-politika falta da, gaixotasun kardiobaskularrak, minbiziak eta elikadurari lotutako gaixotasunen aurrean ditugun portaera batzuk aldatzeko prebentzio-politika, alegia. Duela 50 urte funtsik gabe “zibilizazioaren gaixotasunak” izendatu zirenek loturik daude gehiegizko jan-edanari eta bizimodu sedentarioari, herrialde garatuei baitagozkie. Gaur egun mundu osora zabalduta daude eta mendebaldean epidemia dira.

Arrazoizkoagoa eta eraginkorragoa litzateke medikuntzarekin zerikusirik ez duten kasuei (istripuei, jokabideei eta ingurumenari) lotutako osasun-arriskuen kontrako borroka indartzea. Baina borroka horrek oso erabaki politiko konplikatuak ekarriko lituzke, auzitan jarriko lituzkeelako herritarren ohiturak, medikuen ideologia, osasungintzako profesionalen boterea eta osasunaren industriaren garapena.

Jendearen portaeran hiru faktore dira erabakigarriak: ezjakintasuna, txirotasuna eta berdintasunaren gabezia soziala. Ezjakintasunari, hots, arriskuen ezagutza ezari aurre egiteko, prebentzioak primarioa izan behar du eta lehentasunez eragin haur, gazte, irakasle eta gurasoengan. Formazioa ez da mugatu behar eskoletara, aitzitik, komunitarioa izan behar du medikuen zerbitzuak, udalak, kirol eta kultur erakundeek eta erakunde sozialek bat eginda. Izan ere, banakako jokaeren interbentzioak, eraginkortasun gutxi du.

Bestalde, pobrezia arrisku-faktore garrantzitsua da. Ikerlan askok erakutsi dute txirotasunak bizi-itxaropena laburtzen duela. Beraz, pobrezia kontrako borroka klabea da osasun publikoaren eraginkortasunean, borroka horrek bakarrik hobetu baititzake elikadura, bizilekua, higiena, hezkuntza eta, oro har, bizi-kalitatea. Gizarteak txirotasunaren jokamoldeak kritikatu egiten ditu, baina txirotasunaren biktimak dira. Azkenik, baliabide ekonomikoetan dagoen berdintasun ezaren ondorioa da osasun-berdintasun falta. Berdintasun eza handia den gizarteetan apala da osasun-maila.

Azken finean, prebentiboa omen den medikuntzak hiru akats nagusi ditu: agresibitatea, presuntzioa eta harrokeria. Hala idatzi zuen 2002an David Lawrencek, “frogetan oinarritutako medikuntza” asmatzeagatik mundu osoan famatu denak. Agresibitatea, prebentzioak sarritan harrapatzen dituelako medikuen zaintzarik eskatzen ez duten pertsonak. Presuntzioa, prebentziorako emandako aginduen onura aldarrikatzen baitu frogarik gabe eta kalteak aipatu gabe. Eta harrokeria, kritikarik onartzen ez duelako.

BERAUD, C. *Argia*, 2014ko urriaren 26a. Egokitua

2. ariketa. Aukeratu erantzuna

19. Zer dio testuak prebentzioaren alorrean gomendatutako prozedurez?

- a) Osasuntsu jarraitzeko bidea direla.
- b) Herritar gehienek uste dutena gezurra dela.
- c) Ez gaixotzeko bidea direla.

20. Zer azaltzen du testuak kanpaina berrien inguruan?

- a) Industriak emandako datu zientifiko eta estatistikoetan dutela oinarri.
- b) Erakundeek hedabideetan zabaltzen duten mezua ez dela eraginkorra.
- c) Botiken eraginkortasunaren inguruko mezua ez dela egiazkoa.

21. Zertarako baliatzen dira beldurraz osasunaren profesionalak?

- a) Gaixoengan duten boterea areagotzeko.
- b) Gaixoen medizina tradizionalera jotzeko.
- c) Gaixoen buruz jokatzeko, ez emozioz.

22. Testuaren arabera, zer jokabide dute gaixoen medikuen erabakiekiko?

- a) Oniritzia eskatuta, terapiak onartu ala baztertu egiten dituzte.
- b) Diagnostikoak eta terapiak aukeratzeko erabat libre dira.
- c) Zentzu kritiko ezagatik, proposatutako terapia onartzen dute.

23. Nola borroka gaitzke medikuen boterearekiko mendekotasunaren aurka?

- a) Gomendioen arrazoiak ulertu ezean, agindutakoari muzin eginez.
- b) Osasun-egituren funtzionamendu demokratikoari erreparatu gabe.
- c) Tratamendua edozein delarik, profesionalen aginduak obeditzeari uko eginez.

24. Zer egin behar da prebentzio-politikan?

- a) Benetako politika, herrialde garatuetako ohituren aldekoa.
- b) Mendebaldeko epidemien kontrako borroka indartu.
- c) Osasun-arriskuen aurkako borroka sendotu.

25. Zer faktore dira erabakigarriak jendearen portaeran?

- a) Prebentzio primarioa, eraginkortasuna eta berdintasun soziala.
- b) Arriskuen ezagutza eza, pobrezia eta irabazietan berdintasun eza.
- c) Ezjakintasunarekin batera, berdintasun sozial eta txirotasun falta.

26. Zer dio Lawrencek medikuntza prebentiboaren inguruan?

- a) Erabiltzen diren frogak agresiboak direla.
- b) Kritika ezak harrokeria eragiten duela.
- c) Prebentziorako aginduak erabat onuragarriak direla.

3. ariketa

Ondorengo testuari zatiak falta zaizkio. Hurrengo orrian dituzu falta diren testu zatiak.

Sartu testu zatia dagokion **hutsunean**.

Markatu testuko hutsuneak (27, 28, 29...) betetzeko zein diren testu zatirik egokienak (A, B, C...).

Testu zati bat sobera dago.

JATEAK SORTZEN DU MENDEKOTASUNA, EZ JANAK

Azken urteotan, asko zabaldu da elikagai jakin batzuek mendekotasuna eragin dezaketelako ideia. Azukrea, gantza eta gatza dira susmagarri nagusiak. Ikertzaileen esanetan, ez dago frogarik baieztatzeko elikagaiek mendekotasuna eragiteko arriskua dutela; bai, ordea, jateak berak.

Ez da erraza gizentasunarekin erlazionatutako faktore eta mekanismoak ezagutzea eta ulertzea.

27 Hala, duela urte batzuk zenbait ikertzailek proposatu zuten litekeena dela elikagai jakin batzuk mendekotasuna eragiteko gai izatea. Geroztik, eztabaida bizia sortu zen horren inguruan.

Eztabaida areagotu egin zen 2009an. Izan ere, urte hartan janariarekiko mendekotasuna diagnostikatzeko galdeketa bat argitaratu zuen lehen aldiz Yale Unibertsitateak. Galdeketa janariarekiko mendekotasunaren eskala da eta helburua janariarekiko jokabide desegokia duen norbaitek elikagai-mendekotasuna duen ala ez jakitea. Horretarako, eskalak biltzen dituen 25 adierazpenekin bat datorren eta zer neurritan, aztertzen dute. **28** Yale eskalak zenbait adituen oniritzia jaso badu ere, komunitate zientifikoak oraindik ez du onartu, ezta Estatu Batuetako Psikiatria Elkarteak ere. Izan ere, askoren ustez, ez dago garbi elikagaiek mendekotasuna eragiteko gaitasuna duten ala ez.

Auzi hori aztertu du Europako ikertzaile-talde batek, Europar Batasunaren babesarekin. Haien ondorioa da elikagai-mendekotasuna ez dagoela frogatuta; izatekotan, jateak berak eragin dezakeela mendekotasuna kasu batzuetan. Ikertzaileek *Neuroscience and Biobehavioral Reviews* aldizkarian eman dute beren ikerketaren berri artikulu baten bitartez, zeinetan beharragatik edo hedonismoagatik jatearen arteko bereizketa egin duten. Bereizketa hori ez da hutsala, alde

nabarmena dago batetik bestera eta ezinbestekoa da ezberdintasun hori aintzat hartzea gizentasunaren ikerketan. Beharragatik jaten dugunean, gorputzak funtzionatzeko behar dituen kaloriak eta mantengutza hartzeko jaten dugu. Hori oso nabarmena da ariketa fisiko gogorra egiten dugunean. Bukatutakoan, gose izaten gara eta gorputzak gastatu duena berreskuratzeko jaten dugu. **29** Ohiko adibidea familia-bazkariak dira: azkenburukoa iritsi baino lehen, aseta ditugu gure behar energetikoak eta, hala ere, ez diogu uko egiten txokolatezko pastelari, badakigulako hura jateak plazera sortzen digula.

Artikuluak, mendekotasun-eragiletzat jo diren hiru substantzia aztertu dituzte: azukrea, gantza eta gatza. Azukrearen kasuan, esperimenduek erakutsi dute arratoiek abstinentsia-sindromearen antzeko sintomak izaten dituztela azukrea ukatuz gero. Horrez gain, ahalegin bat egitearen truke eskaintzen bazaie, –adibidez, palanka bat zapaltzearen truke–, prest daude gero eta ahalegin handiagoa egiteko, dosia eskuratzearren. Ikertzaileek ohartarazi dute ezin dutela bereizi arratoien portaera azukreak eragindakoa den ala ohiturak berak, ezta neuroirudi-teknikak erabilita ere. Bestalde, zaila da arratoiei gertatzen zaiena pertsonetara estrapolatzea. **30**

Gantzarekin egindako ikerketetan, ikertzaileek gogorarazi dute ugaztun gehienentzat (gu barne) gantzak gustagarriagoa egiten duela janaria. Nahiago dugu gantz askoko janaria, gantzik ez duena baino. **31** Saguetan, adibidez, ikusi dute gai direla ingurune desatsegina onartzeko, gantz askoko janaria eskuratzearren truke. Maila neurokimikoan, gantzak eragindako aldaketa batzuk azukreak sortutakoaren parekoak dira, baina gantza ukatzen zaienean, ez dute opiaceoek eragindako abstinentsia-sindromearen parekorik erakusten.

Azkenik, gatzaren eragina ere aztertu dute. Hain zuzen, gatzak janariaren zaporea indartzen du eta erakargarriagoa egiten du, eta neurri batean gorputzak haren premia du kaloriarik ez duen arren. **32** Nonbait, gure espezieak gozoarekiko du jaiotzatiko erakarmen hori eta, gainera, ikerketan ez dute azukreak eta gatzak sortutako eragin neurologikoaren parekorik ikusi gatzaren kasuan.

33 Beste era batera esanda, gaur egun dugun ebidentzia zientifikoak ez du baieztatzen droga-mendekotasuna sortzen duten faktoreen eragin berak sortzen dituztela elikagaien

osagaiek. Hori bai, onartu dute pertsona batzuek mendekotasunaren antzeko jokabidea dutela elikagai batzuekiko, gehiegi jaten baitute, baita kalte egingo diela jakinda ere. Horrek eragina du mendekotasunaren antzeko jokabidea duten pertsonen tratamenduan. **34** Aitzitik, jatearekiko bada mendekotasuna, tratamenduaren helburua jokabidea aldatzea da.

GALARRAGA, A. Elhuyar, 2015eko martxoaren 13a. Egokitua

3. ariketa. Txertatu testu zatia

- A.** Baina saguei harekiko erakarmena jaiotzatik nabarmentzen bazaie ere, badirudi pertsonengan ez dela gauza bera gertatzen eta gero ere, urteak pasa ahala, ez dugula garatzen gatzarekiko erakarmen berezirik.
- B.** Mendekotasuna elikagai jakin batek sortua izango balitz, sendabidea elikagai hori jatea eragoztera bideratuko genuke. Alkoholikoek edozer edan dezakete, alkohola izan ezik; bada, antzekoa bilatuko genuke.
- C.** Hedonismoagatik jatean, aldiz, inolako beharrik gabe hartzen da janaria; kasu horretan, gustatzen zaigulako hartzen dugu, plazera ematen digulako eta ez gose garelako.
- D.** Alde horretatik, ikertzaileek uste dute elikagai-industriak eragin zuzena duela jokabide hori izateko joera duten pertsonengan, haien eskura jartzen baititu kaloria ugariko janari erakargarri eta desiragarriak.
- E.** Gaiak hari-mutur asko ditu eta haietako batek jokabidearekin du zerikusia, adibidez, elikadura-asaldurak nahiko zabaldua daude eta badira janarekin drogazaleek drogarekiko duten antzeko jokabidea duten pertsonak.
- F.** Ikertzaileen arabera, pertsonengan mendekotasun-portaera elementu psikologiko eta psikiatrikoekin nahastuta agertzen da, hala nola, lotsa, erruduntasuna, oldarkortasuna, depresioa eta antsietatea, eta zaila da konplexutasun hori arratoietara eramatea eta haiengan probatzea.
- G.** Horien artean daude, esaterako, “fisikoki gaixo sentitzera iritsi arte jaten dut” eta “jaki batzuk ohi baino gutxiago janez gero edo jateari utziz gero, abstinentzia-sindromearen sintomak izan ditut”.
- H.** Horrez gain, nabarmendu dute apetitua erregulatzen duten hormona asko (grelina, leptina...) substantzia horrekin lotuta daudela eta, horrenbestez, ez zaiela harritzekoa iruditzen mendekotasunaren antzeko jokabideak garatzea gantz askoko janariarekiko.
- I.** Beraz, horra ikertzaileen ondorioa: ikerketen arabera, ezin da ondorioztatu substantzia horiek kokainak, alkoholak eta beste batzuek sortzen dituzten aldaketak eragiten dituztenik, ez maila neurokimikoan, ez jokabidean, ezta abstinentzia-sindromearen sorreran ere.

■ Idatzi dagokion letra ondoko laukietan:

Hutsuneak	27	28	29	30	31	32	33	34
Testu zatiak								

Soberakoa

Soberako aukera hau ez da jaso behar erantzun-orrian.

Oharrak

- Ondoren, **bi ariketa** dituzu. **Biak egin behar dituzu.**
- Oso kontuan hartu behar dituzu gaia eta eskatzen zaizun ariketa mota.
- Garbi idatzi eta saiatu letra argia egiten: **ez da zuzenduko irakurri ezin denik.**
- Erabili boligrafoa idazteko.
- Ez jarri zure izen-abizenik; **asmatu izenpea anonimotasuna bermatzeko.**
- Zuzentzeko orduan, hauexek hartuko dira kontuan:
 - Eskatutako guztiari erantzun diozun.
 - Ideiak garbi adierazi dituzun.
 - Euskara nola erabili duzun: egokitasuna, zuzentasuna eta aberastasuna.

ZIRRIBORROAK EGITEKO LEKUA ONDORENGO ORRIETAN DAUKAZU.
EGIN ARIKETAK HORRETARAKO EMAN ZAIZKIZUN APARTEKO ORRIETAN.

1. ariketa

Gaia kontuan hartu eta **eskutitza** idatzi behar duzu.
Gutxienez 180 hitz idatzi behar dituzu.

- GAIA:** Nagusiak arloko arduraduna izateko lan-eskaintza egin dizu. Lanpostu horrek duen erantzukizuna handia delako, ondo pentsatu ondoren, uko egitea erabaki duzu.
- Idatzi gutuna nagusiari hartutako erabakia jakinarazteko. Azaldu kargua onartzeak zure arloan izango lituzkeen ondorioak (lankideekiko harremana, lan-antolaketa...), eskertu zureganako konfiantza eta proposatu pertsona egokiagoa.

2. ariketa: Iritzi-artikulua idatzi herriko aldizkarirako

- **Egoera kontuan hartu** eta gaiari buruz daukazun iritzia azaldu behar duzu. Ez egin helbururik gabeko idazlanik: iritzia eman eta arrazoitu egin behar duzu, herriko aldizkarirako baita.
- **Gutxienez 180 hitz** idatzi behar dituzu.
- Laguntza gisa, gaiaren inguruko informazioa ematen dizugu batetik, eta bestetik, gaia garatzeko erabil dezakezun zenbait ideia.
- Testu antolatua eta koherentea egin behar duzu. Iritziak azaldu egin behar dituzu, daukazun ideiak garatu eta lotu. Hortaz, lagungarri gisa ematen zaizkizun informazioko esaldiak ezin dituzu besterik gabe kopiatu.

EGOERA: Madrilen hamaika urteko mutiko batek, bere buruaz beste egin aurretik idatzi zuen gutunean, eskola-jazarpena sufritu zuela salatu zuen. Gertakari horrek berriro jarri du mahai gainean *bullying*aren inguruko eztabaida.

Gaiaz kezkatuta, herriko aldizkarian iritzia idaztea erabaki duzu.

GAIA:

ESKOLA JAZARPENA: ZERGATIK?

Eskola-jazarpena edo *bullyinga* ikasle batek eskolan beste ikasle talde batengandik jasaten duen eraso-egoera jarraitua da: gutxiespenak, irainak, txantxak, kolpeak eta eraso psikologikoak.



Azken ikasturtean salatutako kasuen % 44,3 eskola-jazarpentzat jo ziren. Kasu gehienak ikastetxean bertan konpondu ziren eta gutxitan jarri zen salaketa epaitegietan.

Eskola-jazarpeneren ondorioak larriak dira biktimentzat: estresa, estutasuna, beldurra eta depresioa. Kasu batzuetan biktimak bere buruaz beste ere egin du, Madrilgo mutikoak kasu.

- Zer har daiteke eskola-jazarpentzat eta zer ez? Zergatik gertatzen da?
- Zer da auzi honetan eskolak egin beharrekoa? Eta gurasoek?
- Zergatik ez dira oso eraginkorrak izan orain arte hartutako erabakiak?
- Zer neurri hartu beharko lirakeke *bullyingari* aurre egiteko?

Zirriborroetarako lekua

Zirriborroetarako lekua

IVAP

HERRI ARDURALARITZAREN
EUSKAL ERAKUNDEA

■ **1. ariketa:** hutsuneak bete.

■ Irakurgaia: «Gordailura hasi dira eramaten Jaurlaritzaren bilduma»

1.	B	2.	C	3.	A
4.	A	5.	D	6.	D
7.	C	8.	D	9.	D
10.	B	11.	B	12.	C
13.	C	14.	A	15.	D
16.	A	17.	C	18.	B

■ **2. ariketa:** aukeratu erantzuna.

■ Irakurgaia: «Prebentzioaren kritika »

19.	B	20.	C	21.	A
22.	C	23.	A	24.	C
25.	B	26.	B		

■ **3. ariketa:** sartu testu zatia dagokion hutsunean.

■ Irakurgaia: «Jateak sortzen du mendekotasuna, ez janak»

Hutsuneak	27.	28.	29.	30.	31.	32.	33.	34.
Testu zatiak	E	G	C	F	H	A	I	B

Soberakoa	D
-----------	---